

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 19,00 horas del día 20 de julio de 2020, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, D<sup>a</sup> Miren Oyarbide Lapazaran, D<sup>a</sup>. Ana Azanza Burusco y D. Mikel Gaztelu Alonso bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

### **1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE SESIÓN DE 25 DE MAYO DE 2020.**

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar la sesión de 25 de mayo de 2020.

### **2.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE EL 22 DE MAYO HASTA EL 16 DE JULIO DE 2020.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray, del contenido de las Resoluciones de Alcaldía de 22 de mayo a 16 de julio de 2020, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

### **3.- APROBACION INICIAL DE CUENTAS 2019.**

Actúa el Ayuntamiento en funciones de Comisión Especial de Cuentas

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que dando paso a la Secretaria informa del expediente de cuentas del ejercicio 2019 lo siguiente:

Que resultan unas obligaciones reconocidas netas por importe de 465.551,40 euros, unos derechos reconocidos netos de 471.267,00 euros y un remanente de tesorería para gastos generales por importe de 280.990,86 euros y un resultado presupuestario tras las modificaciones y ajustes realizados por importe de 2.664,60 euros. Se informa a su vez del acta de arqueo con unas existencias en caja a 31 de diciembre de 2019 de 135.679,96 €, así como de la deuda viva a 31 de diciembre de 2019 de 87.280,18 €. Por último, la Secretaria comunica que se cumple en sus tres reglas con la ley de estabilidad presupuestaria. Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu que manifiesta que la contabilidad pública no la comprende siendo muy diferente a la contabilidad privada, y que ni las cuentas de años anteriores ni estas las entiende por lo que su voto va a ser la abstención

Tras lo cual, visto el expediente del Cierre de Cuentas de 2019, la Corporación acuerda cuatro votos a favor y una abstención del concejal Sr. Gaztelu:

1.-Aprobar la “Cuenta General” formada por la Intervención.

2.-Aprobar el “Informe de la Comisión Especial de Cuentas” y exponerlo al público en el tablón de anuncios el acuerdo por 15 días hábiles de conformidad con el artículo 242.3 de la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra.

### **4.- APROBACION DEFINITIVA PLANTILLA ORGANICA 2020.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que habiendo transcurrido el periodo de exposición pública legalmente establecido sin que se haya presentado alegación alguna, procede la aprobación definitiva de la plantilla orgánica del año 2020.

La corporación aprueba por unanimidad de forma definitiva la siguiente plantilla orgánica para 2.020:

Funcionarios.

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel 15%: Complemento de puesto de trabajo 15,77% Jornada completa.

Relación nominal de funcionarios

E.S.M.: Don Jesús Román Pedroarena Etulain

Personal laboral fijo.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de puesto: 28,35%, Complemento transitorio: 7,91%, Jornada: 28,56%.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de Puesto: 28,35%, Complemento transitorio: 7,91%, Jornada: 28,56%.

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 15%. Complemento de Puesto de trabajo 8,77% Jornada: 35%.

Relación nominal de empleados fijos en régimen laboral.

Auxiliar Administrativo: Doña Ana Isabel Erneta Erro.

Auxiliar administrativo: Doña María José Garralda Zubiri.

Empleado de servicios múltiples Doña Cristina Carra García.

Personal laboral temporal.

Denominación del puesto: Técnico de Euskera. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Euskera. Nivel: B. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de Puesto 6,73% Jornada completa.

Relación nominal de contratados laborales temporales.

Técnico de Euskera: Doña Teresa Iribarren Larrea.

Servicios agrupados con los Ayuntamientos de Orreaga/Roncesvalles y Erroibar/Valle de Erro.

Denominación del cargo: Secretario. Número de plazas: 1. Forma de la provisión: Concurso-oposición. Nivel A. Complementos puesto de trabajo: 40%, Incompatibilidad 35% Jornada Completa.

Relación nominal de personal contratado en régimen administrativo

Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. Secretaria interina. Situación: Activo. Antigüedad 11/06/2012.

## **5.- SOLICITUD DE AYUDA DE LA ASOCIACION AURITZ-BIDEAN CON MOTIVO DEL COVID-19.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray para informar de la solicitud que el Sr. Guillen en nombre de la asociación de hostelería y turismo Auritz-Bidean realiza al Ayuntamiento consistente en que dadas las tremendas consecuencias tanto de salud como económicas que la pandemia COVID-19 está provocando, el Ayuntamiento considere la posibilidad de adoptar medidas económicas como descuentos en los diferentes impuestos y cargos

que ayuden al sector de la hostelería, así mismo precisan de una reunión para hablar de todos ello. Informa también de que dicha reunión se mantuvo el viernes pasado y en ella entre otras cuestiones, el Ayuntamiento les trasladó que no solo el sector servicios se había visto afectado, sino que la pandemia estaba afectando a todos los sectores y especialmente a los autónomos en general, también al sector primario. En todo caso el Ayuntamiento se comprometió a presionar al Gobierno de Navarra para obtener más ayudas, de hecho, no ya el Ayuntamiento sino toda la comarca se estaba organizando para hacer presión y tratar de conseguir más dinero, añadiendo el concejal Sr. Juandeaburre que se podrían aprovechar las ayudas de la Mesa del Pirineo para destinarlas a todas estas cuestiones. Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu que pregunta sobre el impuesto de actividades económicas y la posibilidad de no cobrarlo o aplicar alguna bonificación. Se le contesta que los impuestos mientras no cambie la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra no se pueden dejar de cobrar y en concreto y respecto al IAE, el concejal Sr. Juandeaburre señala que no tiene mucho sentido ya que es un pago que con la declaración de la renta se recupera íntegramente. Retoma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que explica que también se les propuso un aplazamiento de pagos que no consideraron necesario. Por otro lado, aunque pueda parecer que el Ayuntamiento ahorra dinero por ejemplo el destinado a fiestas y ferias, va tener que afrontar por el tema del COVID gastos no previstos como el que va a suponer la escuela y su limpieza, desconociendo el alcance del mismo.

Propusieron enterarse de cuál va a ser la política del Gobierno sobre el turismo que se va a hacer de aquí en adelante porque el asunto del aforo limita todo mucho. Se le respondió que desde el Ayuntamiento se intentará ayudar al sector potenciando actividades culturales y lúdicas, pero no se puede permitir ayudas económicas directas.

El concejal Sr. Gaztelu, manifiesta que desde la asociación cultural Garaitzeko-Asi no se han llevado a cabo actividades por la misma razón.

Se propone finalmente trabajar como comarca y presionar al Gobierno con el tema turístico

Se acuerda por unanimidad aprobar no dar ayudas económicas al sector hostelero y dinamizarlo en la medida que las condiciones sanitarias lo permitan con actividades.

#### **6.- DESIGNACION FIESTA LOCAL 2021.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que por motivos de organización de los diferentes corporativos existentes en Auritz/Burguete, como entidades bancarias, bomberos, Guardia Civil, escuela pública, centro salud, etc, es necesario fijar la fecha de la fiesta local para el año 2021, proponiendo que sea el 7 de diciembre de 2021.

Se aprueba por unanimidad:

1º.- Designar como fecha de la festividad local de Auritz/Burguete el 7 de diciembre de 2021, día de San Nicolás

2º.- Trasladar el acuerdo al Departamento de Desarrollo Económico y Empresarial (Gobierno de Navarra), para su conocimiento y efectos oportunos.

#### **7.- ACUERDO RELATIVO AL APOYO AL COMITÉ DE EMPRESA DE SIEMENS-GAMESA DE AOIZ.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray, que explicando la situación por la que están pasando los trabajadores/as de la empresa Siemens-Gamesa ante el cierre de la misma y las consecuencias socio-económicas que tal decisión va a tener no solo para Aoiz sino para toda la comarca, incluso para Burguete ya que hay vecinos/as que trabajan allí, da lectura a la moción que el Ayuntamiento de Aoiz ha aprobado para que también se apruebe por esta corporación.

Estando todos conforme, se acuerda por unanimidad aprobar la siguiente moción:

*“El pasado martes día 30 la multinacional Siemens-Gamesa anunciaba a través de un comunicado el cierre de la fábrica ubicada en Aoiz. Una decisión que ha pillado por sorpresa al comité de empresa, trabajadores y trabajadoras, al pueblo y al ayuntamiento de Aoiz.*

*La empresa Siemens-Gamesa argumenta que el cierre de la planta de Aoiz se debe a la falta de competitividad, al no tener capacidad para fabricar las palas que demanda el mercado eólico en estos momentos.*

*Estos argumentos consideramos que son meras excusas ya que Siemens-Gamesa es una empresa que arroja beneficios y que esconde una deslocalización pura y dura para trasladar la producción a otro país.*

*Esta decisión vuelve a dejar a Aoiz y su comarca en una situación desfavorecida social, económica e industrialmente ante lo cual, el Ayuntamiento de Auritz/Burguete acuerda:*

- *Mostrar nuestra solidaridad y apoyo al conjunto de trabajadores y trabajadoras de la planta de Siemens-Gamesa en Aoiz.*
- *Mostrar el absoluto rechazo al cierre de la planta Siemens-Gamesa en Aoiz y la deslocalización de la misma, exigiendo el mantenimiento de los puestos de trabajo.*
- *Exigir al Gobierno de Navarra y a las diferentes administraciones su compromiso para reconducir esta situación abogando por el mantenimiento de los puestos de trabajo.*

*Invitar a toda la ciudadanía a los actos que se organicen por parte del comité de empresa.*

*Trasladar el presente acuerdo al Gobierno de Navarra, al Parlamento de Navarra, a la Federación Navarra de Municipios y Concejos, al Ayuntamiento de Aoiz y a l Comité de Empresa de Siemens-Gamesa*

## **8.- DESIGNACION DE MIEMBROS DEL AYUNTAMIENTO PARA LA COMISION DE SEGUIMIENTO DE LAS VIVIENDAS MUNICIPALES.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que en relación con la reunión que mantuvo con Nasuvinsa sobre las viviendas municipales ubicadas en el edificio del Ayuntamiento, informa que, al haber elementos comunes, escaleras, ascensor, etc., es necesario constituir una comisión de seguimiento de las mismas. Comisión que debe estar formada por tres miembros de Nasuvinsa y tres miembros del Ayuntamiento.

Estando todos conformes, se acuerda por unanimidad:

1º.- Nombrar a Juan Miguel Juandeaburre, Ana Azanza y José Irigaray, miembros de la Comisión.

2º.- Trasladar el acuerdo a Nasuvinsa para su conocimiento y efectos oportunos.

## **9.- ACUERDO DE APOYO A LOS COTOS LOCALES DE CAZA DE NAVARRA**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que con el tema de la caza y su gestión, todos los años se suelen dar polémicas entre las asociaciones de cazadores y el Gobierno, por ello las sociedades de cazadores como medidas de presión está pensando en dejar los cotos pidiendo apoyo a los Ayuntamientos en temas como los siguientes: Autogestión, nueva normativa y regulación de daños generados por las especies cinegéticas, refuerzos y sueltas de poblaciones cinegéticas, modificación del POC en su temporalidad y utilidad, obligatoriedad del guarderío y ayudas, manto de nieve, prolongar el periodo de caza hasta el 15 de marzo y por último durante la caza mayor, librar de responsabilidad al cazador respetando la zona batida.

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu que opina que, aunque él no es cazador ni está en contra de la caza, cree que los cazadores cada vez van a recibir más presiones.

Debatido el tema, se acuerda por unanimidad apoyar las pretensiones propuestas por las asociaciones de cazadores.

**Fuera del orden del día** se acuerda tratar por urgencia y por unanimidad la siguiente moción presentada por el concejal Sr. Gaztelu sobre “Utilización de remanentes de las Entidades Locales”:

*La Ley orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, aprobada al amparo de la reforma “expres” de la constitución es la norma que más afecciones y limitaciones ha impuesto al conjunto de las administraciones, y por tanto, ha afectado a los servicios que éstas prestan a la ciudadanía.*

*La Ley regula en un texto único la estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de todas las Administraciones Públicas, tanto del Estado como de las Comunidades Autónomas, Corporaciones Locales y Seguridad Social.*

*Recoge tres reglas fiscales de obligado cumplimiento: estabilidad o equilibrio presupuestario, sostenibilidad financiera o límite de deuda y regla de gasto.*

*La ley, entre otras cuestiones, señala que las administraciones públicas deberán mantener una posición de equilibrio o superávit presupuestario, y que dicho superávit se destinara exclusivamente a reducir el nivel de endeudamiento.*

*También limita el crecimiento de los presupuestos anuales al porcentaje del crecimiento del PIB, sin tener en cuenta la situación concreta de cada administración.*

*Posteriormente, se modificó esta disposición para permitir a las administraciones que cumpliesen una serie de requisitos, pudiesen destinar una parte del superávit a inversiones financieramente sostenibles, pero no fue un cambio suficiente. De hecho, las limitaciones que todavía se mantienen vigentes suponen ahora un gran escollo para que las Entidades Locales Navarras puedan ejercer plenamente sus competencias y disponer de sus recursos a la hora de afrontar los graves problemas sociales y económicos que está acarreado la pandemia del coronavirus.*

*El último Informe de fiscalización del sector público local emitido por la Cámara de Comptos, cifra el remanente del ámbito local navarro en 238 millones de euros.*

*Una cifra que los Ayuntamientos están reclamando hace tiempo poder utilizar sin limitaciones, y más ahora que la ciudadanía reclama de la administración más cercana al ciudadano su papel activo en la respuesta a las necesidades derivadas de la pandemia y en la reactivación.*

*El Gobierno Central ya anuncio su disposición a permitir la reinversión de parte del superávit del año 2019 en partidas de gasto social para dar respuesta a la crisis, algo que nos parece positivo pero insuficiente. Porque lo necesario es disponer de los total de los remanentes, que son los superávits acumulados durante los últimos años.*

*Y por si todo ello no resultara más que suficiente, ahora conocemos que el Gobierno Central pretende utilizar este remanente, impidiendo hacerlo a las administraciones locales.*

*Por ello presentamos la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCION;*

- 1- Instar al Gobierno Central a que de forma urgente realice las modificaciones legales necesarias para permitir a los Entidades Locales a la utilización de la totalidad de sus remanentes, algo que servirá para hacer frente a la emergencia social y económica que viven a causa de la pandemia del COVID-19.”*

Estando todos conformes, se aprueba por unanimidad la moción presentada por el Sr. Gaztelu, instando al Gobierno Central a que de forma urgente realice las modificaciones legales necesarias para permitir a los Entidades Locales a la utilización de la totalidad de sus remanentes, algo que servirá para hacer frente a la emergencia social y económica que viven a causa de la pandemia del COVID-19.

## **10.- INFORMACION VARIA**

### **Reunión de los alcaldes de la frontera con el equipo de la consejera de Relaciones Exteriores Ana ollo.**

El alcalde Sr. Irigaray, informa que el pasado 29 de mayo tuvo lugar una mesa de trabajo entre los alcaldes de la muga y miembros de la consejería de Relaciones Exteriores para valorar las pérdidas a causa de la pandemia y acciones a llevar a cabo para reactivar la economía y las relaciones.

La Corporación se da por enterada.

### **Adquisición de aparato detector de fugas.**

El alcalde Sr. Irigaray, informa que junto con otros ayuntamientos y a iniciativa del de Garralda, se ha adquirido un equipo detector de fugas en la red de suministro de agua.

La Corporación se da por enterada.

### **Adjudicación de trabajos en Casa Consistorial.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que ha adjudicado a la empresa Bengoetxea de Urdax diversos trabajos en el inmueble municipal por valor de 1620 €. entre los que se encuentran renovación de tubería del suministro de agua y rejuntado de esquineros con el sellado del revoco en la esquina de la plaza del Ayuntamiento con la calle San Nicolás para evitar filtraciones.

La Corporación se da por enterada.

### **Consuelo Goñi Garriz.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que el pasado 16 de junio cumplió 100 años Consuelo Goñi Garriz y que con tal motivo el Ayuntamiento en nombre de todo el pueblo le obsequió con un cuadro consistente en su partida de nacimiento dedicada.

La Corporación se da por enterada.

#### **Refugio Ángel Oloron.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que el próximo cinco de septiembre y con motivo de la reinauguración del refugio Ángel Oloron de Belagua, pasará una columna de montañeros por la localidad a la que ha ofrecido las instalaciones que necesiten para el avituallamiento.

La Corporación se da por enterada.

#### **Parque infantil.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que la Obra Social de Caixabank a través de la oficina de Caixabank de Burguete ha concedido una ayuda para la sustitución de los elementos obsoletos del parque infantil a los que se añadirán elementos de ejercicio físico para adultos y juegos para discapacitados.

La Corporación se da por enterada.

#### **Renovación de los órganos de la Justicia Local.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que se han iniciado los trámites para la renovación de juez de paz y sustituto publicándose próximamente la convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra.

La Corporación se da por enterada.

#### **Acciones de desescalada de la pandemia.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que con motivo de la desescalada el pasado seis de julio se abrió de lunes a viernes al público el frontón Josta-Leku ya que es cuando se puede garantizar su desinfección y aforo, añadiendo que según se vea cómo evoluciona el control del aforo y la evolución de la pandemia se decidirá la gestión. Respecto a las autocaravanas tras el desconfinamiento hay problemas con el acceso quejándose muchos vecinos del descontrol y que como primera medida se ha candado el portillo de Xuringoa dando llave a los ganaderos, guarderío forestal, bomberos, Guardia Civil y Presidente de la sociedad de cazadores. En cuanto a la piscina informa que, ante la imposibilidad de controlar el aforo y las medidas antivirus, por ahora no se va a colocar.

La Corporación se da por enterada.

#### **Regulación de estacionamiento de autocaravanas.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que recientemente se ha recibido un escrito de vecinos solicitando se tomen medidas contra el mal uso del comunal y la proliferación de autocaravanas y en consecuencia a ello de basura. Que la Corporación tendrá que estudiar el tema y tomar medidas que afectaran tanto a forasteros como a vecinos y celebrar un batzarre cuando las condiciones lo permitan. Que se ha puesto en contacto con los alcaldes de Roncesvalles y Erro para dar una solución conjunta pues no es un problema local, sino que afecta a muchas zonas rurales y que se ha enterado que sobre ello se está trabajando en Aoiz, Lumbier o Esteribar.

La Corporación se da por enterada.

#### **Actividades culturales para el verano.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que durante el verano se van a celebrar una serie de actividades culturales condicionadas a la evolución de la pandemia, que durante tres jueves del mes de agosto con la colaboración del Departamento de Cultura se ofrecerán tres espectáculos quedando pendiente el tipo y el lugar a celebrar pues se baraja hacerlos en exteriores y se está estudiando el control del aforo. Por otra parte, el pintor Irkus Robles Arangiz expondrá en la casa de cultura durante veinte días del mes de agosto. Para finalizar junto con el Ayuntamiento de Garralda se está trabajando en un acto para presentar un convenio de 1649 entre Garralda y Burguete para una facería en Berrotxipi y Berroaundia que se conserva en Garralda y que recientemente ha sido restaurado por el Archivo Real y General de Navarra.

La Corporación se da por enterada.

#### **Lotes de leña de hogares.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que esta semana se celebrará el sorteo de los lotes de leña de hogares.

La Corporación se da por enterada.

#### **BIC Zaldúa.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que el pasado el plazo de exposición pública para presentación de alegaciones y no habiéndose presentado alguna, la semana pasada la Directora del Servicio de Patrimonio Histórico le comunico la finalización de la incoación como Bien de Interés Cultural del yacimiento de Zaldúa que según las previsiones barajadas puede publicarse definitivamente en el Boletín Oficial de Navarra en la primera quincena de agosto. Por otra parte, comenta que si la evolución de la pandemia lo permite para el próximo otoño se organizará la visita suspendida a los yacimientos de Santa Criz de Eslava y Liédena y al monasterio de Leyre.

La Corporación se da por enterada.

#### **Velatorio.**

El alcalde Sr. Irigaray informa que se han reunido representantes de Erro, Aezkoa, Roncesvalles y Burguete para estudiar la posibilidad de hacer un velatorio comarcal.

La Corporación se da por enterada.

### **14.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu, que pregunta respecto al desfase adjudicación de los lotes sacados por maderista con los lotes de leña de los que no han pedido que se saquen por el Ayuntamiento, el alcalde Sr. Irigaray contesta que marcar los lotes de forma individual lleva más trabajo, hay que marcar cada lote y a los celadores les lleva más tiempo y si a eso le añadimos lo sucedido con el COVID-19, pues todo se ha retrasado mucho más tiempo del habitual ya que no se podían repartir porque desde la celaduría forestal no enviaban el estadijo. Una vez recibido el tema también se retrasó por circunstancias del Ayuntamiento y como se pasó la luna de apeo del haya se dejó para la siguiente que es cuando se van a repartir.

Toma de nuevo la palabra el concejal Sr. Gaztelu, que pregunta porque los portillos que se han candado, en un bando se informó que iban a cerrarse los fines de semana y ahora están permanentemente candados. No entiende porque no se abren entre semana. El alcalde Sr. Irigaray contesta que una vez cerrados se dio llave a todos los sectores



afectados y que visto que el funcionamiento es correcto decidió no abrirlos pues no hay necesidad de ello. Responde el concejal Sr. Gaztelu que con las bicicletas se anda mal para pasar y que le han dicho que como no se solucione el problema romperán los candados.

El concejal Sr. Juandeaburre, toma la palabra y menciona que el tema de la feria en su momento quedó pendiente de decidir si se celebraba o no, contestando el alcalde que ha quedado suspendida.

Así mismo, informa de la asamblea convocada por la Mancomunidad Bidausi para tratar sobre la aprobación de cuentas, así como de los trabajos de cerramiento de las zonas donde se ubican los contenedores, encargándose del material y de su distribución a los Ayuntamientos para que estos con sus trabajadores ejecuten las obras, proponiendo en el caso de Burguete, esperar a que lo hagan otros ayuntamientos para ver como quedan y dependiendo de ello solicitar el material. Informa a su vez de que la Mancomunidad ha preparado unos carteles para colocar en Ipetea y otro donde las piscinas. Respecto a las tasas a cobrar, se informó que el Consorcio no iba a reducir la cuota y que por ello algunas mancomunidades estaban decididas a poner alguna queja o demanda, no así de la Bidausi que decidió que no lo iba a hacer, en todo caso se proponía suavizar las cuotas de la propia mancomunidad si bien esto se tendrá que decidir en la Comisión Permanente.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 20:45 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2020ko uztailearen 20an, 19:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Miren Oyarbide Lapazaran, Ana Azanza Burusco eta Mikel Gaztelu Alonso, bilkura buru alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

### **1.- 2020ko MAIATZAREN 25eko AKTA ONARTZEA.**

Udalbatzak erabaki du aho batez 2020ko maiatzaren 25ean egindako bilkuren akta onartzea.**2.- 2020ko MAIATZAREN 22tik UZTAILAREN 16a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak, Irigaray jk., 2020ko maiatzaren 22tik uztailearen 16a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du; horiek guztiak bilkurako espedientean daude eta udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

### **3.- 2019ko KONTUEN HASIERAKO ONESPENA**

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Alkateak, Irigaray jaunak, hitza hartu du eta idazkariari hitza eman dio 2019ko kontuen txostenaz honako informazioa emateko:

465.551,40 euroko aintzatetsitako obligazio garbiak, 471.267,00 euroko aintzatetsitako eskubide garbiak, 280.990,86 euroko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina eta 2.664,60 euroko aurrekontu-emaitza, egindako aldaketen eta doikuntzen ondoren. Era berean, 2019ko abenduaren 31n kutxan 135.679,96 €-ko izakinak zituen arkeo-aktaren berri eman da, bai eta 2019ko abenduaren 31n 87.280,18 €-ko zor biziaren berri ere.

Azkenik, idazkariak jakinarazi du bere hiru arauetan aurrekontu-egonkortasunari buruzko legea betetzen dela. Gaztelu zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta esan du ez duela kontabilitate publikoa ulertzen, kontabilitate pribatuaren oso bestelakoa baita, eta ez dituela ulertzen aurreko urteetako kontuak ezta aurtengoak ere, beraz, abstentzioa izango da bere botoa.

Horren ondoren, 2019ko Kontu itxieraren espedientea ikusita, Udaltzarak aldeko lau botoz eta Gaztelu zinegotziaren abstentzioz erabaki da:

- 1.-Kontuhartzaitzak aurkeztu duen “Kontu Orokorra” onartzea.
- 2.- “Kontuen Batzorde Bereziaren Txostena” onartzea eta hura onesten duen erabakia iragarki oholean paratzea 15 egun baliioduneko epean, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 242.3 artikulua araber.

#### **4.- 2020ko PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENA**

Irigaray jaunak., alkateak, hitza hartu du eta jakinarazi du legeak ezarritako epean alegaziorik aurkeztu ez denez, 2020ko plantilla organikoa onartu behar dela behin betiko.

Udaltzarak erabaki du aho batez 2020ko plantilla organikoa behin betiko onartzea, hona hemen:

Funtzionarioak

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %15,77 Lanaldi osoa.

Funtzionarioen izen-zerrenda.

Z.A.L.: Jesus Roman Pedroarena Etulain.

Langile finkoak.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %28,35, Osagarri iragankorra: %7,91, Lanaldia: % 28,56. 28,56%.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %28,35, Osagarri iragankorra: %7,91, Lanaldia: % 28,56. 28,56%.

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: 35%.

Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea Maria Jose Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea: Cristina Carra Garcia.

Behin-behineko lan kontratudunak:

Lanpostua: Euskara teknika Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Euskara. Maila: B. Lan egoera: Jardunean. Lanpostuko osagarria %6,73 Lanaldi osoa.

Behin-behineko langileen izen-zerrenda:

Euskara teknikaria Teresa Iribarren Larrea.

Orreaga eta Erroibarko Udaletako zerbitzu bateratuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila.  
Lanpostuko osagarriak: %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.  
Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:  
Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. Bitarteko idazkaria. Egoera: Jardunean. Antzinasuna  
2012/06/11

## **5.- AURITZ-BIDEAN ELKARTEAREN LAGUNTZA ESKAERA COVID-19 DELA ETA.**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza Guillen jaunak Auritz-Bidean ostalaritza eta turismo elkartearen izenean Udalari egindako eskaeraren berri emateko. Eskaera horren arabera, COVID-19 pandemiak osasunean eta ekonomian eragiten dituen ondorio izugarriak ikusita, Udalari eskatzen zaio neurri ekonomikoak hartzeko aukera aztertzea, ostalaritzaren sektorearen zerga eta karguetan deskontuak egiteko, bai eta gaiak hitz egiteko bilera bat egitea ere. Era berean, jakinarazi du bilera hori joan den ostiralean izan zela, eta, besteak beste, Udalak esan zien zerbitzuen sektorea ez ezik, pandemia sektore guztiei eragiten ari zitzaizela, eta, bereziki, autonomoei, oro har, baita lehen sektoreari ere. Nolanahi ere, Udalak konpromisoa hartu zuen Nafarroako Gobernuari laguntza gehiago lortzeko presioa egiteko; izan ere, Udala ez ezik, eskualde osoa antolatzen ari zen presioa egiteko eta diru gehiago lortzen saiatzeko, eta Juandeaburre zinegotziak gaineratu zuen Pirinioetako Mahaiaren laguntzak balia zitezkeela gai horietara guztietara bideratzeko. Gaztelu zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruz eta zerga hori ez kobratzeko edo hobariren bat aplikatzeko aukerari buruz galdetu du. Erantzun zaio zergak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen ez den bitartean, ezin zaizkiola kobratzeari utzi, eta, zehazki, EJZri dagokionez, Juandeaburre zinegotziak adierazi du ez duela zentzu handirik, errentaren aitorpenarekin osorik berreskuratzen den ordainketa bat baita. Irigaray alkate jaunak hartu du hitza berriro, eta azaldu du ordainketak atzeratzea ere proposatu zitzaizela, baino ez zutela beharrezkotzat jo. Bestalde, Udalak, adibidez, festetarako eta azoketarako dirua aurrezten duela eman dezakeen arren, COVID dela eta aurreikusi gabeko gastuei aurre egin beharko baitie, hala nola eskolak eta garbiketarako eragindakoei, ez baitakigu zenbaterainokoa izango den. Proposatu zuten jakitea zein izango den hemendik aurrera egingo den turismoaren gaineko Gobernuaren politika, edukieraren gaiak asko mugatzen baitu dena. Erantzun zitzaizkien Udala saiatuko dela sektoreari laguntzen kultura- eta jolas-jarduerak indartuz, baina ezin dela zuzeneko laguntza ekonomikorik onartu.

Gaztelu zinegotziak esan du Garaitzeko-Asi kultur elkartetik ez dutela jarduerarik antolatu arrazoi berberarengatik.

Azkenik eskualde gisa lan egitea proposatu da eta Gobernuari turismoaren gaien presioa egitea.

Aho batez erabaki da ostalaritza-sektoreari diru-laguntzarik ez ematea eta osasun-baldintzek jarduerekin ahalbidetzen duten neurrian dinamizatzea.

## **6.- 2021EKO TOKIKO FESTA HAUTATZEA.**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Auritzen dauden korporatiboen antolaketa-arrazoiengatik (banketxeak, suhiltzaileak, Guardia Zibila, eskola publikoa,

osasun etxea, etab.) beharrezkoa dela 2021erako tokiko jaieguna finkatzea, eta 2021eko abenduaren 7a izatea proposatu du.

Aho batez erabaki da:

1.- Aurizko tokiko festa 2021eko abenduaren 7a finkatzea, San Nikolas eguna hain zuzen ere.

2.- Ekonomia eta Enpresa Garapen Departamentuari (Nafarroako gobernu) erabaki honen berri ematea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

## **7.- AGOIZKO SIEMENS-GAMESA ENPRESAKO KOMITEARI LAGUNTZA EMATEARI BURUZKO ERABAKIA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta Siemens-Gamesa enpresako langileak enpresaren itxieraren aurrean pasatzen ari diren egoera eta erabaki horrek Agoitzentzat ez ezik eskualde osoarentzat eta Auritzentzat ere izango dituen ondorio sozio-ekonomikoak azaldu ditu, baita bertan lan egiten duten bizilagunak ere, eta Agoizko Udalak korporazio honek ere onar dezan onartu duen mozioa irakurri du.

Guztiak ados egonik, aho batez mozio hau onartzea erabaki da:

*“Joan den asteartean, hilak 30, Siemens-Gamesa multinazionalak Agoitzen dagoen fabrika itxiko zuela iragarri zuen komunikatu baten bidez. Erabaki horrek ustekabean harrapatu ditu enpresa komitea, langileak, herria eta Agoizko Udala*

*Siemens-Gamesa enpresak argudiatu du lehiakortasun faltagatik itxi dutela Agoizko lantegia, ez duelako gaitasunik haize-merkatuak una hauetan eskatzen dituen palak fabrikatzeko.*

*Argudio horiek aitzakia hutsak direla uste dugu; izan ere, Siemens-Gamesa mozkinak ematen dituen enpresa da, eta deslokalizazio hutsa eta gogorra ezkututzen du, ekoizpena beste herrialde batera eramateko.*

*Erabaki horrek berriz ere babesgabeko egoera sozial, ekonomiko eta industrialean uzten ditu Agoitz eta bere eskualdea. Horren aurrean, Auritzeko Udalak honako hau erabaki du:*

- *Elkartasuna eta babesa adieraztea Siemens-Gamesak Agoitzen duen lantegiko langile guztiei.*

- *Agoitzen Siemens-Gamesa lantegia ixteari eta deslokalizazioari uko egitea, eta lanpostuei eustea.*

- *Nafarroako Gobernuari eta administrazioei egoera hori bideratzeko konpromisoa eskatzea, lanpostuei eustearen alde eginez.*

*Herritar guztiak gonbidatzea enpresa-batzordeak antolatzen dituen ekitaldietara.*

*Erabaki hau Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Agoizko Udalari eta Siemens-Gamesako Enpresa Batzordeari helaraztea.*

## **8.- UDAL ETXEBIZITZEN JARRAIPEN BATZORDERAKO UDALEKO KIDEAK IZENDATZEA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza. Nasuvinsarekin udaletxeko eraikineko udal-etxebizitzetara buruz izandako bilerari dagokionez, jakinarazi du, elementu komunak, eskailerak, igogailua eta abar daudenez, beharrezkoa dela horien jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzordean Nasuvinsako hiru kidek eta Udaleko beste hiruk egon behar dute.

Udalbatza osoa ados egonik, aho batez erabaki da:

- 1.- Batzordeko kide hauek izendatzea: Juan Miguel Juandeaburre, Ana Azanza eta Jose Irigaray
- 2.- Nasuvinsari hartutako erabakia jakinaraztea, dagozkion ondorioak sor ditzan.

## **9.- NAFARROAKO TOKIKO EHIZA BARRUTIEI LAGUNTZEKO ERABAKIA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du ehizaren gaiarekin eta haren kudeaketarekin urtero izaten direla polemikak ehiztarien elkarteen eta Gobernuaren artean; horregatik, ehiztarien elkartek, presio-neurri gisa, barrutiak uztea pentsatzen ari dira, eta udalei laguntza eskatzen diete honako gai hauetan: Ehiza-espezieek eragindako kalteen autokudeaketa, araudi berria eta erregulazioa, ehiza-populazioak indartzea eta askatzea, EAP aldatzea aldi baterako eta erabilgarritasunean, zaintza eta laguntzak, elur-mantua, ehizaldia martxoaren 15era arte luzatzea eta, azkenik, ehiza larrian, ehiztaria erantzukizunetik libratzea uxatutako eremua errespetatuz.

Gaztelu zinegotziak hartu du hitza, eta esan du bera ehiztaria ez bada ere eta ehizaren aurka ez badago ere, uste duela ehiztariak gero eta presio handiagoa jasoko dutela.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da ehiztari elkartek proposatutakoarekin bat egitea.

**Gai-zerrendatik kanpo**, erabaki da presaz eta aho batez aztertzea Gaztelu zinegotziak "Toki-erakundeetako soberakinak erabiltzeari" buruz aurkeztutako mozio hau:

*Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, Konstituzioaren "espres" erreformaren babesean onartua, administrazio guztiei eragin eta muga gehien ezarri dien araua da, eta, beraz, administrazio horiek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuei eragin die.*

*Legeak testu bakarrean arautzen ditu administrazio publiko guztien aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna, bai Estatuarenak, bai autonomia-erkidegoenak, toki-korporazioenak eta Gizarte Segurantzarenak.*

*Nahitaez bete beharreko hiru zerga-arau jasotzen ditu: aurrekontu-egonkortasuna edo oreka, finantza-iraunkortasuna edo zorraren muga eta gastu-araua.*

*Legeak, besteak beste, adierazten du administrazio publikoek oreka edo superabita izan behar dutela aurrekontuetan, eta superabit hori zorpetze-maila murrizteko baino ez dela erabiliko.*

*Halaber, urteko aurrekontuen hazkundera BPGaren hazkunderaren ehunekora mugatzen du, administrazio bakoitzaren egoera zehatza kontuan hartu gabe.*

*Geroago, xedapen hori aldatu zen, administrazioek zenbait baldintza bete ahal izan zituzaten, superabitaren zati bat finantzen aldetik jasangarriak ziren inbertsioetara*

*bideratu ahal izan zezaten, baina ez zen aldaketa nahikoa izan. Izan ere, oraindik indarrean dauden mugak oztopo handia dira orain Nafarroako toki-erakundeek beren eskumenak osoki baliatu ahal izan ditzaten eta beren baliabideak izan ditzaten koronabirusaren pandemia eragiten ari den arazo sozial eta ekonomiko larriei aurre egiteko.*

*Kontuen Ganberak egindako tokiko sektore publikoaren fiskalizazioari buruzko azken txostenak 238 milioi euroko gerakina du Nafarroako toki-eremuan.*

*Udalak aspaldi ari dira kopuru hori mugarik gabe erabili ahal izatea eskatzen, eta are gehiago orain, herritarrek herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioari eskatzen baitiote pandemiaren eta suspertzearen ondoriozko premiei erantzuteko bere zeregin aktiboa.*

*Gobernu Zentralak iragarri zuen prest zegoela 2019ko superabitaren zati bat gastu sozialeko partidetan berrinbertitzeko, krisiari erantzun ahal izateko, eta hori positiboa iruditzen zaigu, baina ez da nahikoa. Izan ere, beharrezkoa da soberakin guztiak edukitzea, azken urteetan metatutako superabitak, alegia. Eta, hori guztia nahikoa izango balitz, orain badakigu Gobernu Zentralak gerakin hori erabili nahi duela, toki-administrazioei hori egitea eragotziz.*

*Horregatik guztiarengatik HONAKO EBAZPEN PROPOSAMENA egiten dugu:*

- 1- Gobernu Zentralari premiaz behar diren lege-aldaketak egin ditzala eskatzea, toki-erakundeei beren soberakin guztiak erabil ditzaten ahalbidetzeko, eta horrek COVID-19 pandemiaren ondorioz bizi duten larrialdi sozial eta ekonomikoari aurre egiteko balioko du. "*

Guztiak ados egonik, aho batez Gaztelu zinegotziak aurkeztu duen mozioa onartu da, hots, Gobernu Zentralari premiaz behar diren lege-aldaketak egin ditzala eskatzea, toki-erakundeei beren soberakin guztiak erabil ditzaten ahalbidetzeko, eta horrek COVID-19 pandemiaren ondorioz bizi duten larrialdi sozial eta ekonomikoari aurre egiteko balioko du. "

## **10.- BESTERIK**

### **Mugako alkateek Kanpo Harremanetako Ana Ollo Kontseilariarekin egindako bilera**

Alkate Irigaray jaunak jakinarazi du maiatzaren 29an lan-mahaia egin zutela mugako alkateek eta Kanpo Harremanetako kontseilaritzako kideen artean pandemiak ekarri dituen galerak eta ekonomia eta harremanak suspertzeko egin daitezkeen ekintzak baloratzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Ihesak antzemateko gailua erostea**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, beste udal batzuekin batera eta Garraldakoaren ekimenez, ur-hornidurako sarean ihesak detektatzeko ekipoa erosi dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Udaletxeko lanen adjudikazioa**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Urdazubiko Bengoetxea enpresari hainbat lan esleitu dizkiola, 1620 euroko balioarekin, besteak beste, ur-hornidurako hodia berritzea eta udaletxeko plazaren eta San Nikolas kalearen arteko izkinan emokadura zigilatzea, filtrazioak saihesteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Consuelo Goñi Garriz**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du ekainaren 16an 100 urte bete zituela Consuelo Goñi Garrizek, eta, hori dela eta, Udalak, herri osoaren izenean, jaiotza-agiriaren koadroa oparitu ziola.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Angel Oloron aterpetxea**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du irailaren 5ean Belaguako Angel Oloron aterpearen berrinaugurazioa dela eta, mendizaleen zutabe bat igaroko dela udalerritik eta hornidurarako behar dituzten instalazioak eskaini dizkiela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Haur parkea**

Irigaray alkateak jakinarazi du Caixabankeko Gizarte Ekintzak, Aurizko Caixabanken bulegoaren bidez, laguntza bat eman duela haur-parkeko elementu zaharkituak ordezeko, eta elementu horiei helduentzako ariketa fisikoko elementuak eta ezinduentzako jolasak gehituko zaizkiela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Tokiko Justiziako organoak berritzea**

Irigaray alkateak jakinarazi du bake epailearen eta haren ordezekoaren karguak berritzeko izapideei hasiera eman zaiela eta laster argitaratuko dela deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Pandemiaren deseskalatze ekintzak**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du uztailaren 6an, deseskalada zela eta, Josta-Leku pilotalekua astelehenetik ostiralera ireki zela jendearentzat, orduan berma baitaiteke desinfekzioa eta edukiera, eta gaineratu du, edukieraren kontrola eta pandemiaren bilakaera ikusten den heinean, kudeaketa erabakiko dela. Autokarabanei dagokionez, deskonfinatu ondoren, arazoak daude sarbidearekin, eta bizilagun asko kexu dira kontrolik ezaz. Lehen neurri gisa, Xurigoako langa giltzapetu dute, abeltzainei, basozainei, suhiltzaileei, Guardia Zibilari eta ehiztarien elkarteko presidenteari giltza emanez. Igerilekuari dagokionez, edukiera eta birusen aurkako neurriak kontrolatzea ezinezkoa denez, oraingoz ez dela jarriko jakinarazi du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Autokarabanak aparkatzeko araudia**

Irigaray alkateak jakinarazi du berriki bizilagun batzuen idatzia jaso dela eta horretan eskatzen dela herri-lurren erabilera okerraren eta autokarabanen ugaritzearen aurkako neurriak hartzea, gainera horren ondoren zabor kopurua ere handitu da. Udalbatzak gaia aztertu beharko duela eta bizilagunei zein kanpotarrei eragingo dieten neurriak hartu eta baldintzak ahalbidetzen dutenean batzarrea egitea. Orreaga eta Erroibarko alkateekin hitz egin duela arazoari irtenbidea emateko, ez baita gure herriko arazoa bakarrik, eta jakin duela Agoitzen, Irunberrin eta Esteribarren ere gaia lantzen ari direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Udako kultur jarduerak**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du udan hainbat kultur jarduera egingo direla pandemiaren bilakaeraren arabera. Abuztuko hiru ostegunetan zehar, Kultura Sailaren laguntzarekin, hiru ikuskizun eskainiko dira, eta mota eta lekua egiteke geratuko dira; izan ere, kanpoaldean egingo dira, eta edukiera kontrolatzea aztertzen ari dira. Beste aldetik, Irkus Robles Arangiz pintoreak kultur etxean erakusketa jarriko du abuztuko hogeiei egunez. Eta amaitzeko, Garraldako Udalarekin batera, Berrotxipin eta Berroaundin zegoen fazeriaren gainean Garraldak eta Auritzek 1649an sinatutako hitzarmena aurkezteko lanean ari gara; agiri hori Garraldan kontserbatzen da eta berriki Nafarroako Errege Artxibo Orokorrek zaharberritu du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Etxeko egur loteak**

Irigaray alkateak jakinarazi du aste honetan etxeko egur loteak zozketatuko direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Zalduako IKO**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du, alegazioak aurkezteko jendaurreko epea igaro ondoren, eta bat bera ere aurkeztu ez zenez, Ondare Historikoaren Zerbitzuko zuzendariak jakinarazi ziola Zalduako aztarnategia interes kulturalako ondasun gisa deklaratzeko prozedura bukatu zela, eta, aurreikuspenen arabera, abuztuaren lehen hamabostaldian argitara daitekeela behin betiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Bestalde, pandemiaren bilakaerak horretarako aukera ematen badu, datorren udazkenerako Eslabako Santa Criz eta Ledeko aztarnategietara eta Leireko monasteriora bisita egingo dela adierazi du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Beilatokia**

Irigaray alkateak jakinarazi du Erroibar, Aezkoa, Orreaga eta Aurizko ordezkariak elkartu direla eskualdeko beilatokia egiteko aukera aztertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **14.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Gaztelu zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta galdetu du zurgileak ateratako loteak eta Udalak ateratzea eskatu ez dutenen artean egon den diferentziaz. Irigaray alkateak erantzun du loteak banaka markatzeak lan gehiago daramala, lote bakoitza markatu behar dela eta mendizainek denbora gehiago behar dutela, eta horri gehitzen badiogu COVID-19arekin gertatutakoa, ohi baino askoz denbora gehiago luzatu da, ezin baitziren banatu, baso-zaintzatik ez zutelako estadilloa bidaltzen. Behin jaso ondoren gaia Udalaren afera batzuegatik atzeratu zen eta pagoa botatzeko ilargi-aldia pasatu zenez, hurrengorako utzi zen, eta orduan banatuko dira.

Gaztelu zinegotziak galdetu du zergatik giltzapetu diren atakak bandoa esan zen asteburuetan bakarrik itxiko zirela eta orain modu iraunkorrean dauden itxita. Ez du ulertzen zergatik ez diren aste barruan irekitzen. Irigaray alkateak erantzun du itxi ondoren ukitutako sektore guztiei giltza eman zitzaiela eta funtzionamendua egokia denez berriro ez irekitzea erabaki zuela, ez baitago irekitzeko beharrik. Gaztelu zinegotziak erantzun du txirrindulak gaizki dabilzatelara pasatzeko eta esan diotela arazoa ez bada konpontzen giltzarrapoak hautsiko dituztela.



Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta esan du bere garaian feriaren kontua erabakitzeko gelditu zela eta alkateak erantzun du bertan behera gelditu dela.

Era berean, Bidausi Mankomunitateak kontuen onespenerari buruz hitz egiteko deitu duen batzarraren berri eman du, bai eta edukiontziak dauden guneak ixteko lanei buruz ere, eta materialez eta horiek udalei banatzeaz arduratu da, udalek eta langileek obrak egin ditzaten. Aurizko kasuari dagokionez, beste udal batzuek egin arte itxarotea proposatu du, nola geratzen diren ikusteko eta, horren arabera, materiala eskatzeko. Jakinarazi du baita Mankomunitateak kartelak prestatu dituela Ipetean eta igerilekuaren inguruan jartzeko. Kobratu beharreko tasei dagokienez, jakinarazi zen Partzuergoak ez zuela kuota murriztuko, eta, horregatik, mankomunitate batzuek erabaki zutela kexaren bat edo eskariren bat jartzea; Bidausik, ordea, erabaki zuen ez zuela egingo; nolana ere, mankomunitatearen kuotak leuntzea proposatu zen, baina hori Batzorde Iraunkorrean erabaki beharko da.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:45ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.